

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**JAUREGI JENERALA 10**



**Egile eta data ezezagunak** (segur aski Jose de Goicoa; 1894).  
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan).

**Deskribapena.**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi fatxada planoko jasodura bat (jatorrizko teilatupea berritzearen emaitza), jasodura mantsardatu bat eta jasodura atzeraeman bat, 1920koak guztiak. Harlanduzko fatxada, eta zurezko begiratokia erdialdeko baoan. Behe oineko erdialdeko baoa zati batean handitua. Konposizioko eta apaindura tratamenduko batasun argia dago kale horretako 4tik 16ra bitartean –hirugarren oineko ateburuen apaindurako desberdintasun txikiak salbu–, eta 15 cm-ko hurrenez hurreneko mailakatzek ditu (14ren eta 16ren jatorrizko proiektua Jose de Goicoarena eta 1894koa da).

**Babes erregimena.**

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatua eta atzeraemana (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

\* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.

\* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.